

# 6

# GIDA

# DIDAKTIKOA:

## **GLOOSKAPEK TXORIAK NOLA EGIN ZITUEN (KANADAKOA)**

### AURKIBIDEA:

Gida didaktikoaren azalpena	1. or.
Helburuak	2. or.
Ekintzak	3. or.
Gidoi literarioa blokeka eta denborak zehaztuz	17. or.
Bibliografia	23. or.
Egileak	24. or.

## HELBURUAK:

	Etapako Helburuak	2. zikloko edukiak
Ahozko hizkuntza	Ahozko testuak ulertzea eta interpretatzea, egoera berrietan aplikatu ahal izateko.	Eguneroko egoerei dagozkien haurren esperientziekin erlazionatutako testuetan informazio zehatzak ulertzea, hala nola errutinak, oharrak, instrukzioak, azalpenak, iritziak, bizipenen kontakizunak, sentimenduen adierazpenak. Haurren esperientzietatik hurbil dauden gertakarien informazioak ulertzea, irratiko zein telebistako berriak bereziki. Ahozko testuak ulertzeko estrategiak garatzea, hala nola, hipotesiak egitea, ideia nagusia eta informazio zehatzak identifikatzea.
	Ezagutzak eraikitzeke zein harreman pertsonalak garatzeko, gelako elkarrizketetan euskaraz parte hartzea, koherentzia, elkarrizketaren arauak aintzat hartuz eta kooperaziozko jarrera adieraziz.	Gelan ematen diren azalpenak ulertzea, bai lana antolatzekeak, bai ezagutzak eraikitzekeak. Berdinen arteko elkarrizketa ikasteko tresna gisa erabiltzea. Eguneroko egoerei dagozkien haurren esperientziekin erlazionatutako testuetan informazio zehatzak ekoiztea, hala nola errutinak, oharrak, instrukzioak, azalpenak, iritziak, bizipenen kontakizunak, sentimenduen adierazpenak.
	Hainbat eremutan ahoz komunikatzea, koherentzia, egoeraren ezaugarriak erreparatu eta hizkuntza-arauak aintzat hartuz.	Komunikazioko egoeraren ezaugarriak bereiztea, hala nola hartzailea eta helburua. Ikastetxean euskaraz komunikatzeko ohitura garatzea, ikasteko, jolasteko eta harreman pertsonaletarako. L2an komunikatzeko konfiantza eta ekimena garatzea. Ahozko testuak ekoiztea, hala nola elkarrizketak, bakarrizketak, deiak, oharrak. Ahozko komunikazioan ahotsaren kontrola lortzeko ekimena adieraztea.
	Interakziozko egoeretan komunikazioa sustatzen duten alderdiak aintzat hartzea.	Solaskideek hizkuntzaz egiten duten erabilerari begirunea izatea. Euskara ikasten ari diren ahoskatzeari zein ekoizpenei begirunea adieraztea eta laguntzako jarrerak garatzea.
Hizkuntza idatzia	Testu idatziak ulertzea eta interpretatzea, egoera berrietan aplikatu ahal izateko.	Irakurtzeko estrategiak erabiltzen hasia: aurretiazko ezagutzak gogoratzea, hipotesiak egitea, testuari laguntzen dioten irudietako informazioak baliatzea, ulertzen ez dituen hitzak identifikatzea eta galdetzea. Informazioa integratzea, identifikatuz, sailkatuz eta erkatuz. Eguneroko egoerei dagozkien haurren esperientziekin erlazionatutako testuetan informazio zehatzak ulertzea, hala nola gonbidapenak, zorientzeak, oharrak eta deiak. Haurren esperientzietatik hurbil dauden gertakarien informazioak ulertzea, berriak bereziki. Irakasteko helburua duten testuak ulertzea, hala nola helburu didaktikoa dutenak zein eguneroko bizitzan erabiltzen direnak: webguneetako azalpen egokiak. Irakurketa ozena egitea antzerkia prestatzeko, ahoskatzeaz, intonazioaz eta erritmo egokiaz hausnartuz.
	Gelako jarduerak burutzeko, testu idatzietan dagoen informazioak baliatzea ezagutzak eraikitzeke.	Informazioa integratzea, identifikatuz, sailkatuz eta erkatuz. Hizkuntza idatzia komunikatzeko eta ikasteko tresna gisa balioestea.
	Hainbat eremutan idatziz komunikatzea, koherentzia, egoeraren ezaugarriak erreparatu eta hizkuntza-arauak aintzat hartuz.	Landutako testuak identifikatzea: antzezipena eta azalpena. Landutako testuen egitura identifikatzea: antzezipenaren sekuentziak. Eremu akademikoari dagozkion testuak sortzea informazioa lortzeko, antolatzeke eta adierazteke, hala nola: krokisak.
Literatura hezkuntza	Irakurri eta entzun mota guztietako testu literarioak, gozamen eta garapen pertsonalerako iturri gisa zein hizkuntza aberasteko baliabide gisa.	Haurren intereserako egokiak diren ahozko testuak entzutea. Haurren intereserako eta adinerako egokiak diren testuak antzeztea.
	Irakurzaletasuna garatzeko testuak irakurtzea.	Ikastetxeko liburutegia erabiltzea. Irakurle autonomoa bilakatzeko, gustuko liburuak aukeratzeko irizpideak sortzea.
Hizkuntzaren gaineko hausnarketa	Eremu guztietan ahoz zein idatziz eraginkortasunez komunikatzeko, hizkuntzen erabilerari buruz hausnartzea.	Ahozko eta idatzizko hizkuntzen arteko ezberdintasun esanguratsuenak bereiztea. Ahozko eta idatzizko komunikazioen testuinguruak bereiztea. Ikasgelan lantzen diren testu-generoak identifikatzea, elementu paratestualei zein testualei erreparatu. Testuen atal batzuen izenak zein hizkuntza-sistemaren osagai batzuen izenak ikastea: akotazioak.
	Hizkuntzak ikasteko eta hobesteko konfiantza adieraztea.	
	Hizkuntzen sistemei buruz hausnartzea, ezagutzen dituenak zuzen erabiltzeko.	Testua komunikazioko unitate gisa ulertzea. Oinarrizko arau ortografikoak ezagutzea: harridura-marka, galdera-marka, puntua, marratxo eta parentesia. Oinarrizko arau ortografikoei begirunea izatea. Ekintzaren zirkunstanziaz adierazteko baliabideak: hitzak eta esapideak. Objektuek espazioan duten kokapena eta ibilbidea adierazteko baliabideak.

## **EKINTZAK**

### **JARDUERA FUNTZIONALA**

Bi lan egingo dituzte:

- A) Txorien sorrera adierazten duen kondairaren antzezpena prestatu.
- B) Txorien sorrera eboluzioaren teoriaren arabera azaldu.

A) Gidoia egiteko, oinarri hau abiapuntutzat hartuta:

Lana banatu egin behar da: dekoratuak, antzezleen aukeraketa, gidoia egokitzea, sekuentziak banatzea eta akotazioak idaztea.

### **TESTUA**

Hemen dago antzeztu behar den testua. Zuek zehaztu behar duzue ahotsaren eta mugimenduen izaera. Hau da, nola egin behar da? Horretarako “(Akotazioa)” bete behar duzue. NOLA? Irakaslearen laguntzaz, aztertu ekintzak egiteko moduak eta ahotsa modulatzeko modurik egokienak, eta probak egin, hurrek aukera dezaten. Ondoren, bakoitzak bere testuan idatziko du dagokion akotazioa.

## TXORIEN SORRERA

**NARRATZAILEA:** Behin batean, Haizea izugarri haserretu zen, eta Lurra birrintzea erabaki zuen. Kostaldera abiatu zen, eta, putz eginez, olatu ikaragarriak altxatu zituen. Itsasontziak irauli, eta arrantzaleak uretara bota zituen. Bitartean, arrantzaleen haurrak hondartzan zebiltzan jolasean, gurasoak noiz etorriko eta zer ekarriko zain. Haizeak haiei ere erreparatu zien, ordea, eta oihu egin zien.

**HAIZEA:** (Akotazioa:.....).

Zuek ere harrapatuko zaituztet!

**NARRATZAILEA:** Izututa, lasterka hasi ziren haurrak, eta kobazulo batean ezkutatu ziren. Baina haizea barrura sartu zen, eta dena nahastu zuen: harriak, hostoak... Han barruan ere ezin ziren haurrak lasai egon.

**HAUR BAT:** (Akotazioa:.....).

Irten egin behar dugu.

**BIGARREN HAURRA:** (Akotazioa:.....).

Ezin da, haizeak eraman egingo gaitu.

**NARRATZAILEA:** Zuzen eta zeharka, hegotik eta iparretik, haizearen ufadak izugarriak ziren. Ia ezin zioten zutik eutsi. Elkarri helduta, ozta-ozta lortu zuten berrin kobazulora itzultzea. Baina han barruan ere ezin egon!

**BIGARREN HAURRA:** (Akotazioa:.....).

Biok eramango gaitu!

**HAIZEA:** (Akotazioa:.....).

Zer uste duzue, inozoak halakoak? Hurrengo ufadan, biok harrapatu, eta pikutara bidaliko zaituztet!

**HAUR BAT:** (Akotazioa:.....).

Zerbait egin behar dugu, haizeari sartzen ez uzteko.

**BIGARREN HAURRA:** (Akotazioa:.....).

Bai. Badakit, harriekin estaliko dugu sarrera.

**HAIZEA:** (Akotazioa:.....).

Damutuko zaizue! Ez pentsa, gero, nirekin libratu zaretenik! Harrapatuko zaituztet, mendia eraitsi behar badut ere! Ume nazkagarriok, ez zarete irtengo, e? Ondo da! Ni banoa, baina itzuliko naiz, Hotza nire lagunarekin!

**HAUR BAT:** (Akotazioa:.....).

Ezin gara hemen geratu. Ez dago janaririk!

**BIGARREN HAURRA:** (Akotazioa:.....).

Haizea baretzen denean irtengo gara.

**NARRATZAILEA:** Baina Haizeak gogotik ekiten zion, ez zuen lasaitzeko asmorik. Eta bi haurrak lo seko gelditu ziren, nekearen nekeaz. Halako batean, esnatu egin ziren, eta konturatu ziren haizerik ez zebilela.

**HAUR BAT:** (Akotazioa:.....).

E, e! Haizeak ez du txistu egiten. Goazen azkar!

**BIGARREN HAURRA:** (Akotazioa:.....).

Bai, bai, goazen.

**NARRATZAILEA:** Sarrera estaltzeko lehenago jarri zituzten harri handiei bultza egin eta gero, kanpora irten ziren. Dena lasai zegoen.

**HAUR BAT:** (Akotazioa:.....).

Ez dabil haizerik.

**BIGARREN HAURRA:** (Akotazioa:.....).

Ez.

**NARRATZAILEA:** Hura zuten handik ihes egiteko aukera.

**HAUR BAT:** (Akotazioa:.....).

Tira, etorri! Goazen azkar!

**NARRATZAILEA:** Baina berriro atera zen Haizea.

**HAIZEA:** (Akotazioa:.....).

(UFADA)

**BIGARREN HAURRA:** (Akotazioa:.....).

E? Ai, ene! Berriro altxatu da. Haizea dator.

**HAIZEA:** (Akotazioa:.....).

Ez hain azkar! Harrapatuko zaituztet! Zatozte!

**HAUR BAT:** (Akotazioa:.....).

Ene! Ez gaitu bakean utziko?

**HAUR BAT:** (Akotazioa:.....).

Haize madarikatua! Utz gaitzazu bakean!

**BIGARREN HAURRA:** (Akotazioa:.....).

Ez galdu denbora, edo harrapatu eta eraman egingo gaitu!

**HAIZEA:** (Akotazioa:.....).

Inozoak halakoak, ez dakizue ezin duzuela ezer egin nire aurka? Edonora zoaztela ere, hantxe izango naiz ni.

**HAUR BAT:** (Akotazioa:.....). Badirudi baretu egin dela.

**BIGARREN HAURRA:** (Akotazioa:.....).

Eskerrak, ni ahituta nago eta. Ea gurekin ahazten den behingoz!

**HAIZEA:** (Akotazioa:.....).

Mukizu horiek, irten egin beharko duzuel!

**ZUHAITZ BAT:** (Akotazioa:.....).

E? Baina ze...? Ai, ai!

**BIGARREN ZUHAITZA:** (Akotazioa:.....).

Zer da hau? Ene!

**HIRUGARREN ZUHAITZA:** (Akotazioa:.....).

Zer gertatzen da? Ai!

**HAIZEA:** (Akotazioa:.....).

(BARREA) Zuhaitz guztiak biluzik utziko ditut neure indarraz eta Hotza nire lagunaren indarraz! (BARREA)

**ZUHAITZ BAT:** (Akotazioa:.....).

Baina, zer da hau?

**HIRUGARREN ZUHAITZA:** (Akotazioa:.....).

Ene!

**BIGARREN ZUHAITZA:**(Akotazioa:.....).

Nork haserrarazi du Haize jainko indartsua?

**HIRUGARREN ZUHAITZA:** (Akotazioa:.....).

Ume horiek. Begira, hortxe daude ezkutaturik.

**ZUHAITZ BAT:** (Akotazioa:.....).

Ospa, alde, alde! Zoazte hemendik!

**NARRATZAILEA:** Zuhaitz batetik bestera ibili ziren bi haurrak, Haizearen ufadetatik ezkutatu nahian.

**HIRUGARREN ZUHAITZA:** (Akotazioa:.....).

E? Et, et, et! Niregana ez etorri. Zer uste duzue? Nik ez ditut zuen hutsak ordainduko. Zoazte hemendik! Utikan! Utikan!

**HAUR BAT:** (Akotazioa:.....).

Goazen, hemen ere ez gaude ongi.

**BIGARREN HAURRA:** (Akotazioa:.....).

Bai, goazen azkar.

**NARRATZAILEA:** Haizeak hain indar handiz jo zuen, zuhaitzek hosto guztiak galdu baitzituzten.

**ZUHAITZ BAT:** (Akotazioa:.....).

Ez, ez!

**HIRUGARREN ZUHAITZA:** (Akotazioa:.....).

E? Ez, nire hostoak! Haizea, ez! Ez!

**ZUHAITZ BAT:** (Akotazioa:.....).

Haizea, mesedez, ez! Haurrak ez ditugu babestu, eta ez guri kendu hostoak! Lagunak gaituzu!

**HAIZEA:** (Akotazioa:.....).

Ixo, memeloak! Nork esan dizue zuen laguna naizela?

**HAUR BAT:** (Akotazioa:.....).

Harrapatu egingo gaitu! Ezin dugu ezer egin!

**NARRATZAILEA:** Ia galduak zirenean, ahots bat entzun zuten.

**PINUA:** (Akotazioa:.....).

Ei, haurrok! Zatozte hona! Azkar! Zatozte!

**BIGARREN HAURRA:** (Akotazioa:.....).

Aizu, entzun, norbait deika ari zaigu!

**PINUA:** (Akotazioa:.....).

Neu naiz, pinua. Azkar, zatozte hona, berriro dator eta.

**HAUR BAT:** (Akotazioa:.....).

Goazen, bada. Pinuaren atzean ezkutatuko gara.

**HAIZEA:** (Akotazioa:.....).

Non zarete? Aurkituko zaituztet! Alferrikakoa duzue ezkutatzea; lehenago edo geroago, harrapatuko zaituztet!

**PINUA:** (Akotazioa:.....).

Lasai egon, joan egin da eta.

**HAUR BAT:** (Akotazioa:.....).

Eskerrak, beldurrak airean nengoen.

**BIGARREN HAURRA:** (Akotazioa:.....).

Ahituta nago.

**HAUR BAT:** (Akotazioa:.....).

Ufa, hau sustoa! Oraindik ez zait pasatu!

**BIGARREN HAURRA:** (Akotazioa:.....).

Guk ez genion ezer egin!

**ZUHAITZ BAT:** (Akotazioa:.....).

Ume mukizuok!

**BIGARREN ZUHAITZA:** (Akotazioa:.....).

Ospa hemendik!

**HIRUGARREN ZUHAITZA:** (Akotazioa:.....).

Hobe hemen agertu ez bazinetel!

**HAUR BAT:** (Akotazioa:.....).

Gu ez gara errudunak!

**HIRUGARREN ZUHAITZA:** (Akotazioa:.....).

Zergatik babestu zineten hemen, e? Orain, Haizea gure etsaia da!

**BIGARREN ZUHAITZA:** (Akotazioa:.....).

Haizeak biluzi egin gaitu!

**HIRUGARREN ZUHAITZA:** (Akotazioa:.....).

Hosto guztiak galdu ditugu. Hau piura gurea!

**GLOOSKAP:** (Akotazioa:.....).

Bueno, ederra egin dizue, bai. Ezin dut ezer egin, baina hostoak berriro sortuko zaizkizue.

**GLOOSKAP:** (Akotazioa:.....).

Zuhaitz maiteok, ezin dizkizuet hostoak itzuli. Dena den, ziur egon zaitezte datorren udaberrian berriro sortuko zaizkizuela. Bitartean, neguan lo egingo duzue. Baina, hain triste ikusi ez zaituztedanez, opari hau egiten dizuet. Lagun alai batzuk zuen adarretan biziko dira, eta egunero haien abestiek alaituko zaituztete.

**HAUR BAT:** (Akotazioa:.....).

Eta pinuari zergatik ez dizkio hostoak kendu?


**BIGARREN HAURRA:** (Akotazioa:.....).


Ausartena izan delako!

**NARRATZAILEA:** Zorion kontatu duenarentzat eta zorion entzun duenarentzat!

Ahotsa	Mugimenduak
<p><b>Egoera psikikoa:</b>  eztitan / sasoian / lotsa  gorritan / bihotz minetan  txantxetan / zorionetan /  pozetan / ahaleginean / trufan  / haserre bizian / sutan /  gezur-itxuratan / ametsetan /  patxada ederrean / lo zorroan /  kalma zuritan </p> <p><b>Jarrera:</b>  mesedez /erreguz / lausenguz /  gogo onez / (jateko)-eko guraz </p>	<p><b>Egoera fisikoa edo jarduera:</b>  dilindan / tupustean /  arrapaladan / brastadan /  kulunkan / jolasean / berriketan  / dantzan / lanean / gogoetan /  jokoan / matrakan / eskean /  solasean</p> <p><b>Denbora:</b> supituki</p> <p><b>Modua:</b> zuhurki / apalki</p> <p><b>Balioespena:</b> bereziki / leunki</p> <p>-TO: modua (ederto / galanto /  errazto)</p> <p>-RO: jarraiera (aldira / urtero)</p> <p><b>Graduatzailea:</b> oparo / zeharo /  biziro</p> <p><b>Kalifikazioa:</b> nagiro / geldiro /  argiro </p>

Demagun eszenatokia hau dela; dekoratua proposatu behar duzu. Marraztu zeure diseinua eta, ondoren, ahoz adierazi zeure taldekideei; ahoz, hau da, ezin diezu diseinua erakutsi. Gogoan izan zer eta non jarri adierazi behar duzula. Beraz, hitzak ondo erabili behar dituzu, ondo uler dezaten.





Ea espazioan zehar mugitzeko orientabideak ulertzen dituzuen. Honako gauza hauek marraztu behar dituzue:

Alboko horman eguzki bat.

Lurrean harri bat eta azpian suge baten burua.

Atzeko horman hodei bat eta horren azpian ur tanta bi.

Atzeko horman dagoen erdiko zuhaitzaren ezkerrean barraskilo bat eta eskuinean baloi bat.

Atzeko horman dagoen eskuineko pinuaren ezkerrean lore bat eta horren eskuinean harri bat.

Aurrerago dauden zuhaitzen gainean txori bana eta horien azpian habia.

Aurrerago dauden zuhaitzen behealdean txori bana.

Esan ezazue zer dagoen:

Aurreko ezkerreko zuhaitzaren aurrean:

a) igela; b) ezer ez; c) hosto bat.

Atzeko ezkerreko pinuaren aurrean:

a) igela; b) ezer ez; c) hosto bat.

Lurrean erdiko hostoaren gainean:

a) lore bat; b) ezer ez; c) hosto bat.

Atzeko horman dagoen eguzkiaren eskuineko begiaren aurrean:

a) hodeia; b) betaurrekoa; c) txori bat.



Kondairan, txorien azalpen mitifikatua azaldu dute, baina, gaur egun, badakigu ez zituela inork sortu, beste animalia batzuen bilakaeratik sortuak baitira.

(Aztertu azalpentxo hau, eta frogatu atalen ideia nagusia).

Zientziak zer dio?	ATALAK
<b>TXORIEN SORRERA</b>	<i>Izenburua</i>
<p>Kondaira askotan, txoriak jainkoren batek sortuak direla esaten da; zientziak, berriz, txorien jatorria ikertzen du, eta bi hipotesi izan dira orain arte.</p> <p>Lehenengoaren arabera, txoriak dinosauroen bilakaeratik sortu ziren. Bigarrenaren arabera, txoriak narrastien bilakaeratik sortu ziren.</p>	<i>Sarrera</i>
<p>Duela gutxi, Txinan, txorien jatorria argi dezakeen fosil bat aurkitu dute. Aurkitu dutena dinosauroen eta txorien artean dagoen animalia bat dela uste dute zientzialariek. Hau da, dinosauroak ez ziren bat-batean txori bihurtu, baizik eta aldaketak poliki-poliki gertatu ziren, eta animalia hori bilakaera horren une bat da, dinosauro hegalaria baita.</p>	<i>Garapena</i>
<p>1860an, animalia hegalaria baten fosila aurkitu zuten, eta hori omen da hegaztirik primitiboena. Bada, orain aurkitu dutena hegaztien eta dinosauroen arteko bat da.</p>	<p>* Dinosauro hegalaria baten fosila aurkitu dute.</p>
<p>Masailezurrean ez du hortzik, hegoak ditu, isatsa dauka, eta hegaztiarenak bezalakoak dira gorputzaren hezurak; hain zuzen ere, aldaka, omoplatoa eta esternoia. Gainera, haren erpeak ez dira egokiak zuhaitzetara igotzeko, oinez ibiltzeko dira. Bestela esanda, hegan egiten zuen.</p>	<p>* Lehen hegaztiaren fosila 1860an.</p>
<p>Masailezurrean ez du hortzik, hegoak ditu, isatsa dauka, eta hegaztiarenak bezalakoak dira gorputzaren hezurak; hain zuzen ere, aldaka, omoplatoa eta esternoia. Gainera, haren erpeak ez dira egokiak zuhaitzetara igotzeko, oinez ibiltzeko dira. Bestela esanda, hegan egiten zuen.</p>	<p>* Hegazia dela frogatzen duten datuak.</p>
<p>Beraz, orain arte narrastiengandik ala dinosauroengandik sortuak diren zegoen zalantza hori argitu egin da. Izan ere, aurkikuntza horrekin, beste argudio bat dute dinosauroengandik sortuak direla uste dutenek.</p>	<i>Ondorioak</i>
	<p>* Aurkikuntzaren garrantzia.</p>

Gehiago jakiteko, jo honako webgune honetara:

<http://www.zientzia.net/argazkiak.asp?Azipigai Kodea=B007&menu=B>

Irakur itzazue honako atal hauek:

- Narrasti hegalaria
- Hegaztiak eskalatzaileak izan ziren lehenik
- Lau hegoko dinosauroak, hegaztien arbasoak?

**AZALPENA PRESTATZEKO, IDATZI HEMEN IDEIA NAGUSIAK (LABUR-LABUR)**

*ATALAK*

*Izenburua*

*Sarrera*

*Garapena*

*Ondorioak*



# GLOOSKAPEK TXORIAK NOLA EGIN ZITUEN

MARI: Kondaira hau Ipar Amerikakoa da. Gaur Kanada izena duen lurraldean sortu zen. (OFF) Hango basoak, errekek eta mendiak erraldoiak dira. Politia, e? (ON) Ni ez naiz han sekula izan, baina ezagutu nuen han izandako pertsona bat. Oso bitxia zen. Eta ezagutu nuen modua? Hura bai bitxia! Ez didazue sinetsiko!

Basoan zehar nenbilen goiz eguzkitsu batean, bi gizon ikusi nituen, batak bestea bizkarrean zeramala. Ez nekien zer pentsatu: edo zoratuta zeuden, edo goikoa min hartuta zegoen. Edonola ere, laguntza eskaintzea erabaki nuen.

HEKTOR: Segi, segi! Aurrera!

MARI: Kaixo.

HEKTOR: Egun on!

DUSKOR: Eup!

MARI: Laguntzarik behar duzue? Zauriturik zaude?

HEKTOR: Ez, primeran nago. Eskerrik asko.

MARI: Barkatu, badakit ez dela nire arazoa, baina ez al da oso bitxia ibiltzeko era hori? E?

HEKTOR: A! Zera, tratua egin dugu.

MARI: Zer tratu?

HEKTOR: Berak bizkarrean eramaten nau, eta nik ipuin bat kontatzen diot.

MARI: Eta, bukatzean, txandakatu egiten zarete?

HEKTOR: Bai, baina ez du nahi.

MARI: Nola? Ez duela nahi? Ezin liteke!

HEKTOR: Ezetz? Ikusiko duzu. Ea, Duskor, kontatu ipuin bat.

DUSKOR: Nik ez dakit ipuinik.

HEKTOR: Horrek berorrek esan du ez dakiela ipuinik; beraz, neuk jarraituko dut kontatzen.

MARI: Bada, hori ez da zuzena.

HEKTOR: A! Tratua tratua da, emakumea!

HEKTOR: Agur, poztu nau zu ezagutzeak.

MARI: Itxaron! Eee... ipuina entzun nezake?

HEKTOR: Bueno, bai, baina gero zeuk kontatu beharko duzu beste bat, bestela, badakizu...

MARI: Ez dago arazorik, asko dakizkit eta.

HEKTOR: Oraingo ipuina Kanadakoa da. Kanadan izan zarete inoiz?

MARI: Ni ez.

DUSKOR: Ezta ni ere.

HEKTOR: Kanadako mendi, baso eta ibaiak erraldoiak dira. Bada, antzina, bertako biztanle batzuk ere erraldoiak ziren. Eta, gainera, jenio bizia zuten! Haserretzen zirenean, lurra harrotu egiten zen. Imajinatzen dut jendearen izua mendiak apurtzen ikustean, zuhaitzak erauzten...

MARI: Basatiak benetan!

HEKTOR: Bai, eta ankerrak, ez bakarrik zuhaitzekin, baita gizakiekin ere.

HEKTOR: Pentsatze hutsak dardarka jartzen nau.

MARI: Eta nork egiten zuen hori?

HEKTOR: Haize jainkoak.

MARI: Ene!

HEKTOR: Behin batean, izugarri haserretu zen, eta lurra birrintzea erabaki zuen. (OFF) Kostaldera abiatu zen, eta, putz eginez, olatu ikaragarriak altxatu zituen. Itsasontziak irauli, eta arrantzaleak uretara bota zituen. Bitartean, arrantzaleen haurrak hondartzan zebiltzan jolasean, gurasoak noiz etorriko eta zer ekarriko zain. Haizeak haiei ere erreparatu zien, ordea, eta oihu egin zien.

HAIZEA: (OFF) Zuek ere harrapatuko zaituztet!

HEKTOR: (OFF) Izututa, lasterka hasi ziren haurrak, eta kobazulo batean ezkutatu ziren. Baina Haizea barrura sartu zen, eta dena nahastu zuen: harriak, hostoak... Han barruan ere ezin ziren haurrak lasai egon.

HBAT: Irten egin behar dugu.

HBI: Ezin da, Haizeak eraman egingo gaitu.

HBAT: Ni banoa. Aiii!

HBI: Ez! Utikan, jainko madarikatua! Utz gaitzazu bakean!

HBI: Lagundu! Lagundu! Lagundu!

HBAT: Eutsi hor! Oraintxe noa! Zatoz, zatoz!

HEKTOR: (OFF) Zuzen eta zeharka, hegotik eta iparretik, Haizearen ufadak izugarriak ziren. Ia ezin zioten zutik eutsi. Elkarri helduta, ozta-ozta lortu zuten berriro kobazulora itzultzea. Baina, han barruan ere, ezin egon!

HBAT: Biok eramango gaitu!

HAIZEA: (OFF) Zer uste duzue, inozoak halakoak? Hurrengo ufadan biok harrapatu, eta pikutara bidaliko zaituztet!

HBI: Zerbait egin behar dugu, Haizeari sartzen ez uzteko.

HBAT: Bai. Badakit, harriekin estaliko dugu sarrera.

HAIZEA: (OFF) Damutuko zaizue! Ez pentsa, gero, nirekin libratu zaretenik! Harrapatuko zaituztet, mendia eraitsi behar badut ere! Ume nazkagarriok, ez zarete irtengo, e? Ondo da! Ni banoa, baina itzuliko naiz, Hotza nire lagunarekin!

HBAT: Ezin gara hemen geratu. Ez dago janaririk!

HBI: Haizea baretzen denean irtengo gara.

HEKTOR: (OFF) Baina Haizeak gogor eusten zion, ez zuen lasaitzeko asmorik. Eta bi haurrak lo seko gelditu ziren, nekearen nekeaz. Halako batean, esnatu egin ziren, eta konturatu ziren haizerik ez zebilela.

HBI: E, e! Haizeak ez du txistu egiten. Goazen azkar!

HBAT: Bai, bai, goazen.

HEKTOR: (OFF) Sarrera estaltzeko lehenago jarri zituzten harri handiei bultza egin eta gero, kanpora irten ziren. Dena lasai zegoen.

HBI: Ez dabil haizerik.

HBAT: Ez.

HEKTOR: (OFF) Hura zuten handik ihes egiteko aukera.

HBAT: Tira, etorri! Goazen azkar!

HEKTOR: (OFF) Baina berriro ateratzen zen Haizea.

HAIZEA: (UFADA)

HBAT: E? Ai ene! Berriro altxa da. Haizea dator.

HAIZEA: (OFF) Ez hain azkar! Harrapatuko zaituztet! Zatozte!

HBAT: Ene! Ez gaitu bakean utziko?

HBI: Haize madarikatua! Utz gaitzazu bakean!

HBAT: Ez galdu denbora, edo harrapatu eta eraman egingo gaitu!

HAIZEA: (OFF) (BARREA) Inozoak halakoak, ez dakizue ezin duzuela ezer egin nire aurka? Edonora zoaztela ere, hantxe izango naiz ni.

HBAT: Badirudi baretu egin dela.

HBI: Eskerrak, ni ahituta nago eta. Ea gurekin ahazten den behingoz!

HAIZEA: (OFF) (UFADA) (BARREA) Mukizu horiek, irten egin beharko duzue!

ZUHAITZ BAT: E? Baina zer...? Ai, ai!

BIGARREN ZUHAITZA: Zer da hau? Ene!

HIRUGARREN ZUHAITZA: Zer gertatzen da? Ai!

HAIZEA: (OFF) (BARREA) Zuhaitz guztiak biluzik utziko ditut neure indarraz eta Hotza neure lagunaren indarraz! (BARREA)

ZUHAITZ BAT: Baina, zer da hau?

HIRUGARREN ZUHAITZA: Ene!

BIGARREN ZUHAITZA: Nork haserrarazi du Haize jainko indartsua?

HIRUGARREN ZUHAITZA: Ume horiek. Begira, hortxe daude ezkutaturik.

ZUHAITZ BAT: Ospa, alde, alde! Zoazte hemendik!

HEKTOR: (OFF) Zuhaitz batetik bestera ibili ziren bi haurrak, Haizearen ufadetatik ezkutatu nahian.

HIRUGARREN ZUHAITZA: E? Et, et, et! Niregana ez etorri. Zer uste duzue? Nik ez ditut zuen hutsak ordainduko. Zoazte hortik! Utikan! Utikan!

HBAT: Goazen, hemen ere ez gaude ongi.

HBI: Bai, goazen azkar.

HEKTOR: (OFF) Haizeak hain indar handiz jo zuen, zuhaitzek hosto guztiak galdu baitzituzten.

ZUHAITZ BAT: Ez, ez!

HIRUGARREN ZUHAITZA: E? Ez, nire hostoak! Haizea, ez! Ez!

ZUHAITZ BAT: Haizea, mesedez, ez! Haurrak ez ditugu babestu, eta ez guri kendu hostoak! Lagunak gaituzu!

HAIZEA: (OFF) Ixo, memeloak! Nork esan dizue zuen laguna naizenik?

HBAT: Harrapatu egingo gaitu! Ezin dugu ezer egin!

HEKTOR: (OFF) Ia galduak zirenean, ahots bat entzun zuten.

PINUA: (OFF) Ei, haurrok! Zatozte hona! Azkar! Zatozte!

HBI: Aizu, entzun, norbait deika ari zaigu!

PINUA: Neu naiz, pinua. Azkar, zatozte hona, berriro dator eta.

HBAT: Goazen, bada. Pinuaren atzean ezkutatuko gara.

HAIZEA: (OFF) Non zarete? Aurkituko zaituztet! (Urrunago entzuten hasi da. Joan egin den seinale!) (Haizearen txistua ere ahultzen hasi da, erabat desagertu den arte). Alferrikakoa duzue ezkutatzea, lehenago edo geroago, harrapatu egingo zaituztet!

PINUA: Lasai egon, joan egin da eta.

HBAT: Ai! Eskerrak, beldurrak airean nengoen.

HBI: Ahituta nago.

HBAT: Ufa, hau sustoa! Oraindik ez zait pasatu!

PINUA: Egun on!

HBAT: Egun on!

HBI: Bai eta zuri ere!

PINUA: Gaur egun berezia da basoan. Basoko Jainkoa etorriko da. Atzo etorri behar zukeen!

HBAT: Zein da?

HBI: Madarikatua!

GLOOSKAP: Zer dela eta etorri behar nintzatekeen atzo?

HBAT: Haizea bereak egiten ibili zelako!

ZUHAITZ BAT: Zuek haserretu zenutelako!

BIGARREN ZUHAITZA: Egia da. Lehendabizi amorrarazi eta, ondoren, hona etorri ezkutatzera. Azkenean, gu atera gara galtzaile!

HBAT: Guk ez genion ezer egin!

ZUHAITZ BAT: Ume mukizuok!

BIGARREN ZUHAITZA: Ospa hemendik!

HIRUGARREN ZUHAITZA: Hobe hemendik agertu ez bazinaten!

HBI: Gu ez gara errudunak!

ZUHAITZ BAT: Gainera!

BIGARREN ZUHAITZA: Aurpegia eduki behar da, gero!

HIRUGARREN ZUHAITZA: Zergatik babestu zineten hemen, e? Orain, Haizea gure etsaia da!

HBAT: Ez genuen hori nahi! Barka iezaguzue!

HBI: Sentitzen dugu, kalteak eragin izana.

GLOOSKAP: Kalteak, zer kalte?

ZUHAITZ BAT: Begira!

BIGARREN ZUHAITZA: Haizek biluzi egin gaitu!

HIRUGARREN ZUHAITZA: Hosto guztiak galdu ditugu, hau piura gurea!

GLOOSKAP: Bueno, ederra egin dizue, bai. Ezin dut ezer egin, baina hostoak berriro sortuko zaizkizue.

ZUHAITZ BAT: Noiz baina?

BIGARREN ZUHAITZA: Ziur?

HIRUGARREN ZUHAITZA: Nola jakin dezakezu?

GLOOSKAP: Ziur nago, ez ahaztu basoko jainkoa naizela.

HBAT: Ezin diezu ezer egin?

GLOOSKAP: Bada, utzi pentsatzen. Mmmm! Badakit! Binbili-bonbolo, txio eta bi, eta sor daitezela!

NARRATZAILEA: Hitz magikoak esan ondoren, hantxe agertu ziren zuhaitz ikaratuen aurrean bi txori eder eta polit.

GLOOSKAP: Zuhaitz maiteok, ezin dizkizuet hostoak itzuli. Dena den, ziur egon zaitezte datorren udaberrian berriro haziko zaizkizuela. Bitartean, neguan lo egingo duzue. Baina, hain triste ikusi ez zaituztedanez, opari hau egiten dizuet. Lagun alai hauek zuen adarretan biziko dira, eta egunero beren abestiek alaituko zaituztete.

GLOOSKAP: Eta zuek alde egin ezazue, Haizea berriz etorri baino lehen.

HBAT: Bai, jauna, eskerrik asko.

HBI: Eskerrik asko laguntzeagatik. Ez dugu inoiz ahaztuko.

HBAT: Agur, ikusi arte!

PINUA: Agur, mutilak, hurrengo arte!

NARRATZAILEA: Triste agurtu zituzten egindako lagun berriak, baina lehenbailehen alde egin behar zuten.

PINUA: Agur, beste bat arte!

NARRATZAILEA: Etxerako bidean, kezka bat sortu zitzaion haurretako bati.

HBAT: Eee? Eta pinuari zergatik ez dizkio hostoak kendu?

HBI: Ausartena izan delako!

HBAT: Egia! Nik horixe bera uste nuen.

HBAT: Eta zuek?

HEKTOR: Eta horrela amaitu da nire istorioa. Atsegina izan zaizue?

MARI: Bai. Ederra izan da.

DUSKOR: Bai. Ederra izan da.

HEKTOR: Pozten naiz.

DUSKOR: Ni ere bai.

MARI: Bueno, berandu da, eta nik etxera joan behar dut. Agur, eskerrik asko eta zorte on. Eskerrik asko ipuinagatik.

HEKTOR: A zer aurpegi gogorra! Ez dio, ba, etxera doala?

DUSKOR: Zorion kontatu duenarentzat eta zorion entzun duenarentzat!

HEKTOR: Et, et, et, itxaron! Orain zuk kontatu behar didazu beste ipuin bat; bestela, badakizu zer daukazun...

MARI: O! Bai, jakina! Bazen behin...

## BIBLIOGRAFIA.

- AZKUE, R. M. (1989). Euskalerrriaren yakintza. Literatura popular del País Vasco II: Cuentos y Leyendas. Euskaltzaindia & Espasa Calpe. Madrid.
- Mundu zabaleko ipuinak (1981) Gero argitaletxea. Bilbo.
- DUESO, J. (1997). Cuentos y leyendas de Euskal Herria fantástica ROGER argitaletxea. Donostia
- BARANDIARAN IRIZAR, L. (1995). Antología de fábulas, cuentos y leyendas del País Vasco. Donostia
- BASILE, J. B. (1991). El pentamerón. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.
- JACOBS, J.(1987). Cuentos de hadas célticos. José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona.
- ANDERSEN, C. (1973). La sombra y otros cuentos. Alianza Editorial, S.A. Madrid.
- CURTIS, E.S.(1999). Las flechas mágicas y otros relatos de los indios cheyenes, comanches, wíchitas... José J. de Olañeta argitaletxea. Bartzelona
- GUELBENZU, J. M. (1996). Cuentos populares españoles. Siruela argitaletxea. Bartzelona.
- AFANASIEV, A. N. (1983). Cuentos populares rusos I. Anaya argitaletxea.
- El gran encuentro. liburu bilduma. (1995). SM argitaletxea.
- PHILIP, N. (1995). El libro ilustrado de los mitos. Ediciones BUHO:, S.Alizia.
- GIBSON, M. (1984). Monstruos, dioses y hombres de la mitología griega. Anaya
- TAO TAO LIU SANDERS. (1984). "Dragones, dioses y espíritus de la mitología china" Anaya
- BRANSTON, B. (1984). Dioses y héroes de la mitología vikinga. Anaya

Interneteko helbideak:

www.Zernola.net: Alegiak/alegien zerrenda

<http://www.pnte.cfnavarra.es/kzeta/ipuina.htm>

<http://www.teatroa.com/ipuinak.html>

<http://www.teatroa.com/ipuinak/36lamia.html>

# **Egileak**

## **GOIATZ MULTIMEDIA, S.L.**

**PRODUKTOREA:**

Luisa Calvo

**EGITASMOA, GIDOIA  
ETA GIDA DIDAKTIKOA:**

Luisa Calvo

**GIDA DIDAKTIKOA  
EUSKARAKO ARDURADUNA:**

Joan Ignazio Bereziartua

**ZUZENDARITZA ETA  
ERREALIZAZIOA:**

Mikel Val

**SOINU-BANDA:**

Inhar Val

**EDIZIOA:**

Goiatz Multimedia, S.L.

**TXOTXONGILOAK:**

Goiatz Multimedia, S.L.

**DEKORATUAK:**

Sara García

**TXOTXONGIOLARIAK:**

Macarena Sobrón

Noemí Sobrón

Ana M<sup>a</sup> Rodríguez

# **K2000 S.A.**

Produktore exekutiboa:  
Tomas Ugalde

Euskarako arduraduna:  
Josu Varela

Bikoizketako zuzendaria:  
Alvaro Sánchez

Sarrerako kanta:  
Ana Tere Bengoetxea

Ahotsak:  
Monika Erdozia  
J. L. Irigoien  
Pedro Arrieta  
Ana T. Bengoetxea  
Ramón F. De Castro  
Kepa Kueto  
Jon Goirizelaia  
Tere Jaio  
Eduardo Gorriño

Audioko teknikariak:  
Ricardo Goti  
Antonio González  
Javier Artetxe

Nahasketak:  
Gorka Lara  
Juan C. Cantera

Produkzioko laguntzailea:  
Ana Urresti

Koordinatzailea:  
Jon Arce

EIMA 2000

Ikasmaterial honek Hezkuntza,  
Unibertsitate  
eta Ikerketa Sailaren  
egokitasun-aitormena du:  
2008/05/14

LEGEZKO GORDAILUA: SS-1499/05

Copyright 2007:

L.C. PRODUKTOREA